

# **AUTO-TAXI ETA ALOKATZEKO GAINONTZEKO IBILGAILUETARAKO LIZENTZIEN ETA ADMINISTRAZIO BAIMENEN EMAKIDA ARAUPETZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

## **I. ARAUTZAILEA**

### **1. artikulua**

Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko III. tituluan ezarritako ahalmenak erabilita, eta Kontzertu Ekonomikoak lurralde historikoetako eskumenei jarraikiz, lurralde historikoetako agintaritzak eskumendunek aukera dute zerga-erregimena ezartzeko eta araupetzeko. Bestalde, Bizkaia Lurralde Historikoko tokiko ogasunak araupetzen dituen abenduaren 19ko 9/2005 Foru Arauarekin bat etorritik, Udal honek "Auto-taxien eta alokatzeko gainontzeko ibilgailuen lizentziak eta baimenak emateagatik tasa" ezarri du. Hain zuzen ere, ordenantza fiskal honek araupetuko du.

### **2. artikulua**

Ordainarazpen honen xedea da 1. Artikuluan aipatutako lizentzia eta baimenak emateko beharrezko zerbitzu teknikoak eta administratiboak ematea.

### **3. artikulua**

1. Ordenantza honetan ezarritako tasak ondoren zerrendatzen diren auto-taxien eta alokatzeko gainontzeko ibilgailu arinen lizentzien kontzeptuak jasotzen ditu:

- a) Administrazio-lizentziak eta baimenak ematea, igortzea eta erregistratzea.
- b) Lizentziak eta baimenak erabiltzea eta ustiatzea.
- c) Ibilgailuak ordezteak.
- d) Lizentzia transmititzea.

#### **2. Transmisioak**

Bidaiariak turismo-ibilgailuetan hiri barnean eta hirien artean garraiatzeari buruzko ekainaren 29ko 2/2000 Euskal Legean xedatutakoaren arabera, lizentziak eta baimenak ezin izango dira eskualdatu, honako kasu hauetan izan ezik:

- a) Titularra hil denean, bere senar/emazte alargunaren edo legezko jaraunsleen alde.
- b) Erretiroa hartu denean.
- c) a) atalak aipatzen duen senar/emazte alargunak edo jaraunsleek ezin dutenean lizentzia jarduera bakar eta eskusibo gisa ustiatu.

d) Lizenziaren titularrari lanerako ezintasuna aitortu bazaio, gaixotasun, istripu edo ezinbestekotzat jo daitezkeen beste arrazoi batzuegatik.

e) Lizenziaren titularra hamar urteko antzintasuna badu.

Eskualdatzeko, beharrezkoa da tokiko erakundearen alde aurreko baimena, eta hamar urteko epean ez du lizentzia berririk eskuratzetik izango.

Emailleak eta hartzaileak bete beharreko betekizun zehatzak araudiari jarraikiz garatuko dira. Kasu orotan, transmisioek eragina izango dute ibilgailu berberari dagozkion tituluen multzoari.

## **II. ORDAINTZEKO BETEBEHARRA**

### **4. artikulua**

1. Ordaintzeko betebeharra honako kasu hauetan sortzen da:

a) Garraio-zerbitzurako administrazio-lizentzia eta –baimena eman, igorri eta erregistratu denean, garraio-zerbitzuak emateko auto-taxietan eta gainontzeko alokairu-ibilgailuetan (zehazki, Hiri barneko eta hirien arteko garraio-lanak ibilgailu arinen bidez egiteari buruzko araudi nazionalako A, B eta C motatakoetan).

b) A, B eta C mota horietako lizentziak erabili eta ustiatzeagatik.

c) Lizentziak beste ibilgailu bati ezartzeagatik, aurrekoa ordezkatu egin denean.

d) Lizentziak transmititzea.

2. Tasak derrigor ordaindu behar dira:

a) A, B eta C motetako lizentziak emateagatik, igortzeagatik eta erregistratzeagatik, eta erabiltzeagatik eta ustiatzeagatik. Lizentzia eta lizentzia horren transmisioa egiteko baimena jasotzen dituen pertsonak ordaindu behar ditu.

b) Lizentzia bati lotutako ibilgailua ordezkatzegatik. Titularrak ordaindu behar du.

## **III. OINARRIAK ETA TARIFAK**

### **5. artikulua**

A) Lizentziak ematea, igortzea eta erregistratzea, lizentzia bakoitzeko:

1. A motakoa (auto-taxiak).....	941,83€
2. B motakoa (turismo-autoak).....	1.026,61€

B) Lizentzien erabilera eta ustiapena, lizentzia bakoitzeko:

1. A motakoa (auto-taxiak).....	48,04€
2. B motakoa (turismo-autoak).....	57,63€

C) Ibilgailuak ordezkatzeari, lizentzia bakoitzeko:

1. A motakoa (auto-taxiak).....	85,76€
2. B motakoa (turismo-autoak).....	85,76€

D) Lizentziak transmititzea, lizentzia bakoitzeko

1. A motakoa (auto-taxiak).....	941,83€
2. B motakoa (turismo-autoak) .....	1.026,61€

#### **IV. LIKIDATZEA ETA ORDAINTZEA**

##### **6. artikulua**

Tasa honen menpeko jarduerak eta zerbitzuak alderdi batek hala eskatuta gauzatuko eta emango dira.

Udal Administrazioak dagokion likidazioa egingo du, eta zergapekoek Bizkaia Lurraldeko Diru-bilketako Araudi Orokorrean ezarritako epeetan ordainduko dute.

#### **V. LEGE URRATZEAK ETA ZEHAPENAK.**

##### **7. artikulua**

Zergei dagozkien arau-hausteak kalifikatzeari dagokionez eta arau-hauste bakoitzari kasuan kasu dagokion zehapenari dagokionez, aintzat hartuko da Zergei buruzko foru-arau orokorreko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa.

#### **VI. AZKEN XEDAPENA**

Zergaren araupetzean aurrekontuei buruzko foru-arauetan edo zuzenean aplikatu beharreko bestelako arau edo xedapenetan egiten diren aldaketek, bidezkoa bada, Ordenantza Fiskal honen aldaketa tazitua eragingo dute.

Ordenantza hau Udalbatza Osoak 2017ko urriaren 24an eginiko bilkuran aldatu da, bere indarraldia 2018ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta indarrean jarraituko du harik eta aldatzea edo bertan behera uztea ebazten den arte. Ordenantza Fiskal hau zati batean aldatuz gero, aldatzen ez diren artikuluek indarrean jarraituko dute.